

Nola erdalduntzen dira elkarrizketak? (Txillardegi)

GERTA DAITEZKEEN
ELKARRIZKETETAKO
ZENBATEAN EGINGO DUTE
EUSKARAZ?
Berdea: euskaraz
Gorria: gaztelaniaz



Atera kontuak etxe baten lau pertsona bizi direla (A, B, C eta D).

Atera kontuak horietako 3k euskaraz badakitela, eta 1ek ez.

Atera kontuak euskaraz dakitenek elkarrekin euskaraz egiten dutela, baina euskaraz ez dakien bat elkartzan zaienean gaztelaniaz hitz egingo dutela.



ONDORIOAK...

Euskaraz dakitenak %75 dira, baina **11 konbinaziotik lautan** egin ahal izango dugu **euskaraz**.
Hau da, gutxi gorabehera **3tik 1en**.

Eta Bermeon zer? 10 lagunetik 8k badaki euskaraz, 1ek ulertzen du eta 1ek ez daki. Beraz, binakako elkarrizketetan euskaraz eginez gero euskaldunekin eta ulertzen dutenekin, **10etik 8 elkarrizketa euskaraz izango dira**.



ERROXAPE ELKARTEAN TAILERRAK EUSKARAZ

2011n Erroxape Elkarteak bi tailer egin ditu euskaraz; bata HIESaren ingurukoa eta bestea genero-berdintasunari buruzkoa.

HIESari buruzko berbaldiak interes handia piztu zuen eta emakumeen parte-hartzea oso handia izan zen. Galdera ugari egin zioten hizlariari eta azalpen guztiak euskaraz eman ziren, batek euskaraz berbetan ez jakin arren, ulertzen zuelako.

Genero-berdintasunaren inguruko tailerlean hainbat gai landu ziren:

- Etxeko arduren banaketa.
- Zaintza-lanen banaketa.
- Bermeoko guneko ilunak.
- Emakumeen presentzia herriko kale eta enparantzen izendegietan...

Bietan ere gustura izan ziren hizlariak eta parte-hartzaileak. Gainera, tailer gehiago egiteko prest daude elkarteko kideak, eta, jakina, euskaraz!

7. zenbakia | 2012ko negua

Berba eta kafea

**Abenduaren 3an
Euskararen Nazioarteko Eguna
ospatu genuen, elkarregaz berbetan.**

Zelan egingo du berba Bermeok 2020an?

Galdera hori eta beste batzuk erantzun genituen abenduaren 3an Kafe Antzokian elkartu ginen 45 lagunak. Horrez gain, bestelako ekitaldietan ere parte hartzeko aukera izan genuen:

- 2010eko ume jaioberrien liburua aurkezteko jaia.
- Bermeoko ikastetxeetan antzerkia, tailerrak, jokoak eta kultur ekintzak.
- Ken zazpi kontzertuan.
- Euskararen aldeko Lip dub-a.

Hamaika aukera hizkuntza bakar batean!



Eguna: Abenduak 3
 Lekua: Bermeoko Kafe Antzokia
 Ordua: 11:00
 Gaia: Euskara Bermeon
 Parte-hartzaileak: 45
 Taldeak: 9
 Geroa: Atsegina
 Balorazioa: Oso ona



Berba eta berba

Aurrera begira landu beharreko gaiak

Bermeon orain arte euskararen alde egindako ekimenak eta lanak aztertu eta eztabaidatu genituen:

ONDO EGINDAKOAK

1. Udaleko komunikazio gehienak euskara hutsean.
2. Euskara Sailak euskararen alde egindako ekimenak.
3. Hizkuntza-paisajea euskarazkoa izatea.
4. Kultura Saitetik bideratzen diren euskarazko tailerrak.
5. UEMAren barruan izatea.

EUSKARAREN PRESTIGIOA HANDITU DUTENAK

1. Euskara Saila bera sortu izana izaera propioarekin.
2. Hizkuntza Eskola Bermeon ezarri izana.
3. Udalak lortutako Bikain Ziurtagiria.
4. Udalaren jarrera bera hizkuntzarekiko.

HORREKIN BATERA, AURRERA BEGIRA LANDU BEHARREKO GAIK ERE PROPOSATU GENITUEN:

BERMEOKO EUSKARA, BIZKAIERA ETA BATUA

- Udaleko bandoak "ulertezinak" dira.
- Batuak aberasten du gure euskalkia eta bietan alfabetatzea beharrezkoa dugu.
- Batuan dakiena lotsatu egiten da bermeotarrez egiten.
- Pelikulak/liburuak batuan izaten dira, eta ez dira ulertzen.

EUSKERAK GURE HERRIAN DAUKAN PRESTIGIOA

- Gazteen ikuspegitik, "erdara da guaixea" eta "jende modernoak erdaraz egiten dau". Hala ere, gazte gutxi izan ziren ekitaldian, eta arlo horretan eragiteko asko dagoela azpimarratu zen: sare sozialak (facebook, twitter, tuenti...) erabiltzea, esaterako. Eta belaunaldiz belaunaldi aberastasuna galdu egin da: transmisioan hutsunea? Telebistaren eragina?
- Kirol munduan ere euskara gutxi egiten da, eta monitore eta eredu euskaldunak bultzatzea beharrezkoa da.
- Gaztelania elebakarrari erakutsi behar diogu euskaldun/elebidun izateak dituen abantailak. Zelan erakarri erdaldunak euskaldunengana?

TITULARRAK

BERBALDIAREN AMAIERAN, TITULAR EDO ESALDI BATZUK BOTA ZITUZTEN MAHAITAKO KIDEEK. HONA HEMEN BATZUK:

Euskera ohitura da. Egunerokotasunaren bidean goaz eta ez lotsatu! Gurea da eta!

Prestigioagaz, konpromisoagaz eta lidergoagaz herri euskaldunagoa gara eta izango gara.

Norbera erreferentia izanda, eremuek zabaldu, SARIE eraikitzen

Norberanagaz harro eta bakoitzak hartu daixela beren zakue.

Bermeon euskaraz lotsa barik! Gora Bermeoko euskerie!

Euskeraz edonon, edonori, edozertarako.

Eta azken horrekin geratuko gara: Apurka-apurka aurrera egin dezagun, euskaraz edonon egiteko (lantokian, etxean, lagun artean, udaletxean, kirolean...), edonori (lagunari, auzokoari, ezezagunari, itxura ezberdina duenari, euskaldun berriari, ulertzen duenari), edozertarako (maitasuneko berbak esateko, protestatzeko, lan egiteko, eskatzeko, emateko, bizitzeko...).

TALDE-LANA

11:00etan hasi genuen ekitaldia. Parte-hartzaileak Kafe Antzokira hurbildu ahala, taldeka jesarri ziren mahaietan. Mahaiako kideen aurkezpenak egin eta lanean hasi ginen. Taldeek euren mahaietan euskararen inguruko galdera bat topatu zuten eta horren inguruan aritu ziren berbetan 20 minutu. Denbora-tarte hori pasata, taldekideak euren mahai utzi eta beste mahai batera mugitu ziren beste galdera bat erantzuteko. Talde bakoitzak 3 mahaitatik pasatu eta 3 galderen inguruan hausnartu zuen. Horretarako, mahai bakoitzean gidari edo dinamizatzaile baten laguntza izan zuten. Dinamika egin bitartean, parte-hartzaileek kafeaz eta pastaz gozatzeko aukera ere izan zuten.

HIRU GALDERA EUSKARAREN IRAGANAZ, ORAINAZ ETA ETORKIZUNAZ HAUSNARTZEKO

- Hiru izan ziren Bermeotarrek erantzun behar izan zituzten galderak:
1. Zer gauza on egin dira Bermeon geure euskararen erabilera handitzeko, euskararen prestigioa lantzeko...?
 2. Zer egin beharko genuke 2020an Bermeon euskaraz bizitzeko?
 3. Zer egin dezaket nik, bihar bertan, neure eragin-eremuan, euskara indartzeko?

BARRE EGITEKO AUKERA

- Hausnarketa eginda eta dinamika amaituta, opari ederra jaso genuen Eneritz Artetxeren eskutik. Barre eta ia negar ere egin genuen. Zer hausnartu eta zer pentsatu eman zigun ikuskizunak:
- Zergatik zigortzen dugu geure burua euskaldunok?
 - Zergatik ezartzen dizkiogu hainbeste muga gure hizkuntzari?
 - Zergatik iruditzen zaigu geure euskara ez dela benetako euskara?
 - Zergatik ez dugu euskara behar adina erabiltzen?

2011 **Bikain**
 euskararen
 kalitate ziurtagiria

BIKAIN!, BERMEO

Bermeoko Udalak Hizkuntza Kudeaketaren Kalitatezko Ziurtagiriaren goreneko maila lortu du, **Urrezko Bikain Ziurtagiria**, Eusko Jaurlaritzak eta Euskalit Fundazioak sustatuta. Urrezko Bikain Ziurtagiriak euskaraz jardutearen balioa aitortzen du, normalizazioan bideratutako politika egokiaren, ausartaren eta eraginkorraren fruitua eta emaitza.

Bermeo izan da Bizkaiko lehenengo udala, **Bikain Ziurtagiriaren** goreneko maila lortu duena.

